

8. FUNTSEZKO JARDUERAK

• Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

- Gure funtsezko jarduerak ekoizpena , hau da, gure produktua oso ondo eginda egon behar da bezeroek gutaz ondo hitz egiteko, normalean behin bakarrik erosiko dutelako diru asko delako.
- Gure funtsezko beste jarduera bat zerbitzu on bat ematea da hasieratik amaierara, hau da, erosi baino lehen zalantza bat baldin badute guk ondo tratatu eta laguntzea, ahalik eta arinen produktua heltzea eta arazoren bat baldin badute produktuarekin arazorik gabe gurekin kontaktuan jartzea.
- Hala ere, oso garrantzitsua da enpresaren webgunea eta on line denda kudeatzeko, sustatzeko eta bezeroak erakartzeko jarduera ere.